

“Espainiak eraikuntza behar du krisitik ateratzeko”

Luis Rodolfo

CEPCO Eraikuntza Produktuetako Enpresaburuen Konfederazioko zuzendari nagusia

Espainia eraikuntzaren mende dago, non milioi bat lanpostu galdu diren, eta haren beharra du krisitik ateratzeko. Iritzi horretakoa da Luis Rodolfo Zabala, Eraikuntza Produktuetako Enpresaburuen Konfederazioko zuzendari nagusia. Rodulfok onartzen du gehiegikeriak egin direla, baina etxebizitza gehiago eraiki beharra dagoela esaten du, batez ere Kantauri itsasoko ertzean, Extremaduran edo Madrilgo zenbait ingurutan, eta herri-lanetan inbertitu beharra dagoela, bizitoki ez diren eraikinetan edo zaharberritze-lanetan, ingurumen-araudia aintzat hartuta, beti ere, eta kontsumitzaileari kalitatea bermatuta.

Bidezkoak dira eraikuntzaren arloari egiten zaizkion kritikak? Asko eraiki da eta, ziurrenik, azkarregi. Gehien eraiki zen urtean, 690.000 etxebizitza berri egin ziren, eta eskaria 400.000koa edo 500.000koa izango zen, asko jota. Krisiarekin askoz nabarmenago ikusi da eskaria eta eskaintza ez daudela parean. Botere publikoek eta etxebizitza-sustatzaileek erregulazio bat egin behar zuketean, merkatua egokitzeko.

Gehiago eraiki beharra al dago? Ohiko eraikuntza arloan ez ezik, baita herri-lanetan, bizitoki ez diren eraikinetan edo zaharberritze-lanetan ere. Badiara egin gabe dauden mantentze-lanak eta azpiegitura berriak, baina ez da dena kolpe egin behar. Gaiena, etxebizitza Ministerioaren arabera, 25 edo 26 probintzia inguruk lehenbailehen behar dituzte bizitokiak. Batzuetan gerta daiteke prezioak igotzea, eskari handia dagoelako eta eskaintza urria. Adibidez, Kantauri itsasoko ertz guztian, Extremadura, Gaztela eta Leongo probintzia askotan edo Madrilgo inguru batzuetan. Baina finantzaketak huts egiten du.

Engainagarria al da Estatuko batez bestekoa? Bai. Adibidez, Castellok 5.700 etxebizitza ditu saldu gabe 100.000 biztanleko, Gipuzkoak 600, Extremadurak 400, Madrilak 1.500.

Zenbat etxebizitza behar dira? Gure kalkuluen arabera, saldu gabe dauden etxebizitza berriak 1.000 eta 1.500 artean dira 100.000 biztanle bakoitzeko. Horren azpitik dabilzan probintzia guztiek etxeak behar dituzte.

Espainiak eraikuntza behar al du krisitik ateratzeko? Eraikuntza arloan milioi bat lanpostu galdu dira. Guk 280.000 galdu ditugu, eta jende horrek, batez beste, 20 urte zeramatzen enpresan eta bazuen nolabaiteko lanbide-prestakuntza. Inork ez du esaten Espainiak eraikuntzaren mende egon behar duenik hemendik 25 urtera, baina orain ez dago beste aukerarik.

Zer egiten duzue krisitik ateratzeko? Eustea lortu dutenak eta eskaria duten herrialdeetara esportatzen dutenak hasi dira gora egiten. Esportatzeko gaitasunik ez dutenak berrikuntzari emanak daude, epe motzean produktu hobek egiteko. Isolamendu termikoa eta soinu-isolamendua, energia-eraginkortasuna... alderdi horiek asko hobetu daitezke etxeak zaharberrituta, diru asko gastatu gabe, gainera, eta herrialdeari ere mesede egiten dio ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik.

Europako Parlamentuaren Auken txostenak dio Espainian ingurumen-eragin larria ekarri duen urbanizazioak. Egia da gehiegikeriak izan direla, baina ez da izan orokorra. Galarazitako leku batean hotel bat eraiki eta bota egin behar bada, primeran. Zenbat eta gehiago bete araudi teknikoa eta ingurumenari dagokiona, hainbat hobe-

ki. Era horretan, ongi jokatzen dutenek iraungo dute bizirik.

Betetzen al da ingurumen-araudia? Zati bat ez guztiz ongi. Guk administrazioei eskatzen diegu merkatua zain dezatela, baina esaten digute baliabide gutxi daudela eta eskumenak autonomia erkidegoek daukatela.

Zer-nolako neurriak hartzen dituzue ingurumenean daukazuen eragina murrizteko? Ingurumen arloko hogei bat legediren mende gaude, eta guztiak betetzeko borondatea daukagu.

Material ekologikoak aurrera egiten ari al dira? Artile organikoak aztertzen ari dira, zur zatiekin egindako isolatzaileak, eta abar. Enpresek orain ez dute gaitasun handirik inbertsioak egiteko, baina haien helburua da ekologikoa denari tarte egitea.

Zergatik ez dira gehiago erabiltzen? Inertziak eraginda, sustatzaile eta arkitektoek ezagutzen duten hori erabiltzerantz jotzen dutelako beti.

Zer irizten diezu eraikintzako ziurtagiri berdeei? Horien aldekoa naiz eta egingo dute bidea. Azken erabiltzailearen arabera izango da.

Zer esango zenieke kontsumitzaileei? Kalitatea eska dezatela. Bestela, metro koadroaren espekulazioarekin jarraituko dugu. Etxea erosten dutenean, galde dezatela zer ezaugarri tekniko dituen, ez prezioa bakarrik. Eta zerbait betetzen ez bada, legezko erreklamazioa egin diezaiotela sustatzaileari.

Ekologikoa garestiagoa da? Luzera begiratuta, iraunkorra dena errentagarriagoa da. Gehiegi jokatzen dugu epe motzera.

GEHIAGO JAKITEKO
www.consumer.es

